

B

BARREN

A portrait of Iñigo Palomino, a man with dark hair, wearing a dark pinstriped suit jacket, a light blue and white striped shirt, and a dark tie with light blue and pink stripes. He is smiling slightly and has his arms crossed. The background is a blue wall with some blurred elements, possibly a train or a public transport setting.

**“Garraio publikoaren
aldeko apustua garbia da”**

Iñigo Palomino, Eusko Trenbideak enpresako zuzendaria

ETXEBIZITZAK ERAIKITZEN SANTA KLARA 13 zkia. (Elgoibar)



- Duplexa terrazarekin
- 2 eta 3 logelako etxebizitzak
- Garaje eta trastelekuak

INFORMAZIOA eta SALMENTA: Pedro Muguruza Etorbidea, 9 - Behea (Elgoibar).
Tif.: 943 191 303 / 615 758 480

Bost urte, eta epaiketaren zain

Lankide baten deiak esnatu ninduen, goizeko 5:30ak aldera. Egunkariako lagun batzuekin afaltzen egona nintzen gau hartan, eta ez zen ordu asko oheratu nintzela. Bi aldiz azaldu behar izan zidan Jonek gertatzen ari zena, eta hala ere, ezin sinetsi. Guardia zibilek Andoaingo egoitza hartu zutela eta lankideak atxilotzen ari zirela. Irratia pizteko esan zidan, eta Martin Ugalde Kultur Parkera agertzeko, lehenbailehen. Ez ahazteko nortasun agiria, polizia josita zegoela eta ingurua. Irratian izenak besterik ez ziren, baina entzun ahala, aurpegiak eta ahotsak zetozkidan burura. 2003ko otsailaren 20a zen. Telefonoa hartu eta beste lankide bati deitu nion. "Aizu, Ekaitz; ba al dakizu?". Ekaitzi ere kosta egin zitzaion sinestea. Industria gune batean aparkatu genuen, eta oinez egin genituen azken metroak. Aterki txikiak ikusi genituen, txamarra lodiak, neguko txanoak, eta aurpegi goibelak. Lankideak, lur jota.

Egun horretan bertan, eguerdian, egoitza guztiak itxi zituzten, Juan del Olmo epailearen aginduz, eta "Egunkaria-ko" 10 arduradun

eraman zituzten preso. Orain, operazio hartan atxilotuetako zazpi eta gerora atxilotutako beste bost kartzelara joateko arriskuan daude, euskarazko egunkari bat sortzen eta bultzatzen egindako lanagatik.

Bost urte, eta oraindik ere gezurra ari du. "Euskaldunon Egunkaria" betiko itxi zuten, eta ostegun goiz hartatik zain gaude, bidegabeke hiri zelan biribilduko duten zain. 2003an hasitako operazio hark euskalgintza osoa jarri du jomugan. Izan ere, akusazioaren paperetan, "Egunkaria-z" gain euskalgintzako hainbat erakunde aipatzen dituzte.

"Egunkaria" itxi zuten, baina ez gintuzten isildu. Ezin gaituzte isildu.

Ainara Argoitia
"Euskaldunon Egunkaria-ko"
langile ohia



"Nire txanda" atalean idatzi nahi baduzu, jarri zaitetz gurekin harremanetan: 943 74 41 12 edo barren@elgoibarkoizarra.com

**"Egunkaria itxi zuten, baina ez gintuzten isildu.
Ezin gaituzte isildu".**

Ilñigo Palomino, EuskoTrenbideak enpresako zuzendaria:



"Euskal Y-aren kontrako iritziak errespetatzen ditut"

www.elgoiBARREN.net

**Egin klik
eta
ikusiko duzu**





Iñigo Palomino iaz izendatu zuten Eusko Trenbideak enpresako buru, Euskotren eta Bilboko tranbia bere gain hartzen dituen, bi urtetan Eusko Jaurlaritzako Garraio saileko zuzendari jardun ondoren. Erraz egokitu omen da lanpostu berrira eta pozarren dago hain ibilbide luzea duen erakunde baten zuzendaritza postuan. Lanegunetan goizeko 6:30ean esnatzen da lanera joateko eta etxera 20:30ak aldera iristen da. Erronka berriei aurre egiteko erne dago, eta lanean dihardu herritarrei garraio publikoa erabiltzeko aukerak errazteko. Zuzentzen duen enpresaren zereginen artean, honakoak: tren zaharrak erretiratu, berriak erosi, euskal Y-a bultzatu, trenbide sarean bi zentzuko bideak bultzatu...

Elkarrizketa osoa irakurtzeko: www.elgoiBARREN.net

Euskotreneko bezeroa zara?

Harreman handia dut Mioño (Kantabria) herriarekin eta asteburu askotan hara joaten naiz. Larunbat goizetan lan egin behar deanean, Elgoibartik Bilbora trenez joaten naiz eta gero, autoz. Interesgarria da guk eskaintzen dugun zerbitzua momentuan ikustea. Batzuetan bidaia horiek trenez egiten ditut, edozein bezeroren pare, eta beste batzuetan gidariarekin, trenbidean egon daitezkeen arazoak gertutik jakiteko.

“Euskal Y-aren aurka asko eztabaidatu da, eta bada garaia proiektua martxan jartzeko”

Jakingo duzu, noski, Elgoibartik Bilborako bidaia zenbat irauten duen eta ez dela bizkorra. Zaharkiturik geratu den sarea berrietzeko zer egingo da?

Une honetan azpiegiturearen sare osoaren %22k bakarrik dituzte noranzko bi bideak. Gainontzeko %78 bide bakarrekoa da eta, noski, horrek dakar trenak ezin direla gurutzatatu. Beraz leku askotan ezin dugu frekuentzia edo abiadura handiagoan joan. Hori guztia saihesteko, Eusko Jaurlaritza apustu argia egiten ari da trenaren alde. 2012. urterako plan estrategikoa gauzatu da, eta 1.212 milioi euroko inbertsioa egingo da, besteak beste bi bide horiek bantatzeko, aukera emateko trenak gurutzatzeko, zerbitzu hobea emateko eta abiadura handitzeko. 2012rako sare horren %40 banandua izango dugu.

Zertan da lehiakorra Euskotren?

Euskotreneko sarea ez dago pentsatuta Bilbotik Donostiara joateko, hurbilagoko bidaia egiteko baizik. Oso lehiakorrek gara adibidez, Zornotzatik Bilbora joaten, Ermutik Elgoibarrera joaten, Zumaiatik Donostiara joaten. Bidaia luzeetarako ez da hain gomendagarria...

Herrian kexatzen zaizkizu Euskotreneko zerbitzuarekin?

Gure helburua izan behar da biztanleriaren mugikortasun beharrak asetzeko ahalik eta

kalitate altueneko garraio publikoko zerbitzua eskaintzea. Hori izan behar da gure helburua. Beti daude gauzak hobetzeko eta inbertsioak bide horretan gauzatu behar dira.

Zer egingo duzue aurrekontuekin bezeroei zerbitzu hobek eskaintzeko?

Euskal Trenbide Sareak 600 milioi euroko aurrekontua du datozen bost urteetarako eta Eusko Trenbideak enpresak 255 milioi euroko aurrekontua du. Zer egingo dugun? Tren berriak erosi; ditugun tren batzuk erretiratu ditugu eta beste batzuk berri; Bilbon beste tranbia bat erosi dugu; 2008. urte bukaeran tranbia jarriko dugu martxan Gasteizen; 11 tranbia erosi...

Elgoibarri dagokionez, zer berrikuntza egingo dira?

Elgoibarren inguruan ere hobekuntzak egingo dira. Eibar eta Ermua artean trenak 15 minuturo izaten dira eta 2010erako tren horiek Elgoibarreraino helduko dira. Elgoibar, Eibar eta Ermua artean, hamabost minutuko maiztasunarekin ibiltzeko aukera izango dute bezeroek. Gure plan estrategikoaren parte da. Beste azpiegitura batzuei bultzada eman behar zaie, eta hor dago euskal Y-aren proiektua, EAEko hiru hiriburuak 30 minutuko denboran batuko baititu. **AHTren aurka daudenei zer esango zenieke?**

Proiektu horren inguruan asko eztabaidatu da eta bada garaia proiektua martxan jartzeko. Kritikak errespetatzen ditut, baina horrek ez du esan nahi zapuztu behar denik trenaren alde dagoen gehiengoak uste duena. Herriaren irizpideak hauteskunderen %85 proiektuaren aldekoa da.

Elgoibarren bertan ere jendeak bat egiten du proiektuarekin?

Hori sumatzen dut.

Datu kontrajariak daude, askok ez dakite zer pentsatu. Informazioa ondo helarazi duzue?

Informazioa badago, zentzu horretan Eusko Jaurlaritzak esfortzu handia egin du informatzeko. Egitasmoa konplexua da, eta askotan ez da erraza informazioa jendeari ahalik eta egokien helaraztea. Euskal Y-a ezinbesteko proiektua da euskal gizartearentzat, tren sarea birplanteatzeko aukera emango digu eta lurralde antolamenduen ikuspuntutik, hiriburuen arteko komunikazioa sendotuko du.

Europako Batasunak bulzatu du makroproiektu hori, baina Eusko Jaurlaritzak adierazi du salgaien edo merkantzien garraioa arinduko zuela. Errepideak gainezka daude?

Bai, kamioi asko daude eta gainera etorkizunera begira, larriagotu egingo da egoera. Alternatibak eskaini behar ditugu. Hau ez da proiektu isolatu bat, Europatik tinko bultzatzen den Lisboa-Madril-Paris lotuko dituen proiektuko atal txiki bat da. Proiektu horretatik kanpo egoteak eragingo luke Europatik kanpo geratzea. Salgaien 80% errepidez mugitzen da eta errepidez arazo handiak ditugu, pilaketak direla eta.

Proiektuaren aurka dauden eragileek diote euskal Y-ak ez duela apenas salgaien garraioa arinduko...

Ez dauka zentzurik datuen arteko gerra horretan ibiltzeko. Alemaniara joatea animatuko nieke.

Alemaniarako trenak oso onak dira...

Bai, hemengoak ere bai.

“2010erako Elgoibar, Eibar eta Ermua artean, hamabost minuturo izango dira trenak”

Euskotrenek 25 urte egin ditu, ez du oihartzun askorik izan gizartean. Zer dela eta?

Izan du entzutea. 25 urte egin dituela esatean badirudi enpresa berri baten inguruan ari garela hitz egiten, baina historiari begiratu, Euskotrenek jaso du hainbat urtetako trenbidearen garapenaren herentzia. Egun dugun sarea, hobetuta badago ere, XIX. mendean eraikitzen hasten den sarea da.

Anbizio handiko pertsona izan zara ala gauzak etorri diren moduan hartu dituzu?

Gauzak etorri diren moduan hartu ditut. Hasieran estuago, Lakuarako jautzia garrantzitsua izan zen nire bizitzan, eta hortik aurrera ezarri dudana formula lana, lana eta lana egitea da.

Amalurra

Oier Narbaiza

Azken 40-50 urteetan ingurueta paisaia erabat aldatu da, batez ere baserrietan gertatutako zeregin eta bizitzeko modu berriak direla-eta. Antzinako bizimodua joan da baserrietatik eta horrek paisaian eragin ikaragarria ekarri du.

Basoak gero eta leku handiagoa hartu du azken urteotan, pinudiek batez ere. Izan ere, lehen baserri inguru guztiak landu egiten ziren eta laboreek garrantzi ikaragarria izaten zuten. Armaixta baserriko Jose Zubizarretaren esanetan, "lehen hemen gauza labratzea zen. Dena labratzen zen, eskina guztiak". Hori dela eta, orain pinudiak ikusten ditugun hainbat tokitan, lehen soro zabalak izaten ziren.

Zelaiak ere gaur egun baino gutxiago ziren inguruetan, baserrietako behi kopurua ez zelako handia izaten. Elgoibarko mendiak aldapatsuak izan arren, soroak ikus zitezkeen nonnahi. "Zelai batzuk bakarrik lagutzen ziren", azaldu du Armaixtak.

Gari sailak

Batez ere hiru ziren labore garrantzitsuenak: garia, artoa (babarrunekin) eta arbia. Hori dela eta, urte sasoiaren arabera, paisaiaren koloreak erabat aldatzen ziren. Baso

Mendi aldeko paisaiaren aldaketa



eta zelai gutxiago zegoenez, udan gari sail gorri-gorriak ikusten ziren inguruetan, gaurko gazteentzako sinestezina bada ere. Gari horrekin egiten zuten lehen baserrietan ogia.

Baserritarrek inguruko bazterrak lantzen zituztenez, basoak normalean urruna-

go izaten ziren edo labratzeko desegokiak ziren lekuetan. Pagadi eta gaztainondo kopurua handia zen.

Horrez gain, orain ez bezala, garo sail handiak ere izaten ziren mendietan. Garaia ikulietako azpietarako erabiltzen zuten.

Sasoiaren sasoikoa

Azalorea

Garai honetan ortua ez da oso oparora izaten, baina bada sasoioko produktu bikainik: azalorea, esate baterako.

Azalorea neguan ez ezik udaberrian ere izan ohi dira. Azalorea antzina behar-koaren eta buruko minaren kontrako sendagaia zen, baina gero elikagai bihurtu zen. Romanesku aza azalore barietate bat da eta gero eta ezagunagoa da gure sukaldeetan. Romaneskua berdea da eta piramide itxura du.

Elgoibarko azokan honako barazki hauek aurkitu litezke urteko sasoi honetan: babarrunak, kipula, patata, kalabaza, bruselako azatxoak, azalorea, brokoliak, romanekuak, azak, berakatzak, karduak, kukuluak (kogolloak), letxugak, eskarolak, apioa, txikoria, berakatz freskoak, borrajak, greloak, kipulinak, porruak, erremolatxak eta azenorioak. Negurik ez da egiten ari eta horren eragina nabaria izango da hurrengo hilabeteetan.





Txomin Arriola Astozalea (Akei baserria)

Bost bider jarraian eskuratu du asto ederrenaren saria Akei baserriak Lazkaoko Astotxo Egunean. Txomin Arriolak Idotorbe-San Pedro auzoko zelaietan hazten dituen guztietatik ederrena Mimi astemea izan da aurten. Arriolak zazpi urte daramatza astoak hazten.

“Oraingo astoek jan ondo egiten dute eta lanik ez”

Gaur egun zer lan egiten dute astoek?

Gaur egunean ez dute egiten lanik: etxe buelta garbitu. Auzoko etxeetan erabiltzen ditut. Lehen lana egiten zuten, bai: lehen astoei jateko gutxi eman eta lana egunero egiten zuten. Eta gaur bestera: jan ondo eta lanik ez. Gero makineriarekin galtzen joan ziren astoak.

Zer dela eta antolatzen dute Astotxo Eguna Lazkaon?

Aspalditik dator Astotxo Eguna, orain dela urte asko egiten zen. Ehunka urte izango dira. Han ere astoak hasi ziren gutxitzen eta urteren batean hiru-lau izan ziren, orain dela hamabost urte. Gero zerbait egitea pentsatu zuten eta elkarte egitea pentsatu zuten bertako astoak diruz laguntzeko. Hasi ginen poliki-poliki bilatzen... Orain jende dexente ari da kargua hartzen asto hauei.

Zenbat asto izan dira aurtengo lehiaketan?

Aurten 117 asto egon dira, bertakoak, eta beste hiru urtetan ehundik gora izan dira.

Ni gustura nago. Lana gogor ari da egiten eta ikusten da meioratzen ari dela.

Orduan astoak ez dira desagertuko zati batean...

Niri iruditzen zait asto naturalak hauek izango direla. Gauzak hobetzen ari dira. Diru-laguntzek hobetu egin dute. Hainbeste urtean egindako lana ikusten da.

Enkarterrietako arrazakoak dira, ezta?

Bai. Hauek hemen lanean ibiltzen ziren, baina minetan ere ibiltzen ziren asto txiki hauek.

Asto txikiak, txikerrak, baina gogorak.

Hori da. Hau bizkaiko hitz bat da: “Txikerra baina gogorra”. Ezaugarriak hauek dituzte: tripa-azpi zuria, mutur punta zuria, begi bueltak ere bai, eta altueran 1,20 azpitik egon beharra. Gero hanka fin samarrak eta belarriak ere txikiak, ahal baldin bada.

Bost urtetan aurkeztu zara?

Bai. Eta bost sari lortu ditut. Arrekin hirutan eta emeekin bitan.



Bideoak, argazkiak eta informazio gehiago: www.elgoiBARREN.net

Laguntza 11 proiekturi

Elgoibarren Landa ingurumeneko 11 proiektu gauzatuko direla iragarri du Debemen elkarteak. Garaipen proiektuotan 362.400,28 euroko inbertsioa egingo da, eta Debemenek 132.720,11ko diru laguntza emango du. Proiektuetako batek Elgoibarko landa eremuaren azpiegitura azterketa egingo du. Beste batek, berriz, hil amaierako feria sustatzeko balio izango du. Horrez gain, San Antolingo lokal sozialaren ekipamendua egingo da eta Idotorbe-San Pedro eta Aiaastia-San Migel auzoetan ekipamenduak jarriko dituzte. Naturguneko proiektuei dagokienez, Aubixako karobia egokitu dute. Aiaastia-San Migeleko ur horniketaren bigarren fasea eta Mausitxa baserriko ur sondeoa ere diruz lagunduko dute. Honako baserri bideak egokituko dituzte, gainera: Ziarda Txikikoa, Mugertzakoa, Arantzbeltz-Urruzunokoa eta Sallobentekoa.

Nekazaritza ekologiko ikastaroko izenematea

EHNE sindikatuak antolatutako nekazaritza ekologiko ikastaroko izena emateko epea zabalik dago. Eibarren eskainiko duten ikastaro horretan ortuaren eta landareen maneju naturalari buruzko xehetasunak eskainiko dira. Informazio gehiagorako deitu 945 275 477 edo 946 232 730 zenbakira.

Tolosako Babarruna elkarteak bazkide bila dabil

Udaberrian babarrunak ereiteko asmoa dutenak Tolosako Babarruna elkarteak bazkide egin daitezke. Izan ere, elkarteak bazkideak behar dituela iragarri du. Gaur egun 58 bazkide-ekoizle ditu, 17,5 hektarea inguru ereiteko. Gutxi gorabehera 31.000 kilo babarrun jasotzen dituzte urtero. Informazio gehiagorako deitu 943 650253 telefono zenbakira.



BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak, NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.com.

Irudipena eta errealitatea

Ostegunean, greba egunean, goizeko 11:00etatik aurrera, herriko kaleetan zehar buelta bat emanez gero, greba orokorra izan zela zirudien, baina ez!

Langileria, baita zerbitzu eta merkataritza oro ere, lanean zegoen, manifestazioaren presioa nabaritu zuten arte. Sinistarazi nahi digute beraienak bakarrik den arazoa Euskadin bizi garen guztiona dela eta ez da egia.

Ez dakit zenbat aldiz eskaini zaien irtenbidea eta ez dute konpondu nahi, denok nahastu nahi gaituzte euren estrategian.

Ondo iruditzen zait ados dauden merkatariek denda ixtea edo konsekuente izanda ez zabaltzea, manifestazioaren aitzakia erabili gabe, baina itxi nahi ez dutenak aske izan beharko liriateke dendak irekita mantentzeko, inolako presiorik gabe. Azken finean, askatasun falta sumatzen da.

Juanjo Bastarrika ☺

Amaia Urtzelairekin bat nator

Nik ezin izango nuke hobeto esan! Joan zan asteko alean Amaia Urtzelaik idatzi zuenarekin erabat ados nago eta txalo zaparrada handi bat eman nahi diot. Zer gutxi zaintzen da gure herrian etxebizitzaren estetika eta ingurunea! Lehendik King-Kong daukagu, eta orain, berriz, zer izen jarri behar diogu Santa Ana kaleko monstruoari? Kanpotar batek horrelako edifizio erraldoi eta zatarrak egiteko baimena ematea ezin da onartu, baina ulertu daiteke

bera ez delako bertakoa. Hala ere, herriko agintariek nola eman dezakete baimen hori? Seguru arazoak egongo direla, nola ez, eta gora botatzea merkeagoa da eta lekua badagoenez... ba bota pisuak gora. Txarrena betirako direla, King Kong bezala. Zer pena.

L.O. ☺

ESKUTITZEI BURUZKO ARAUDIA

BARREn edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko ditu nahitaez:

1. Eskutitz guztiek identifikatuak egon behar dute: izen-abizenak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia derrigorrezkoak dira.
2. 1.500 karaktere izan behar ditu gehienez eskutitzak.
3. Eskutitzak izen-abizenen inizialekin edota izen-abizenekin argitaratuko dira. Ezizenarekin ezingo dira sinatu gutunak. Onartu egingo ditugu identifikagarriak diren taldeak: "Ikastolako irakasleak", esaterako. Bestalde, sinatzailearekin batera beste lagun batzuk ere daudenean, hauek ere identifikatuta egon behar dute.
4. Pertsona eta erakundeek gutun-egilearen izen-abizenak jakiteko eskubidea izango dute gutun horretan euren izena aipatu edo erreferentziaren bat egiten bada eta gutuna inizialekin sinatuta badago.
5. Ez dira onartuko: biraoak, gutun iraingarriak eta errespetu faltaz idatzitakoak, buzoneatzeko edo kale banaketa egiteko idatzitako idazkiak, pertsona eta erakunde zuzenduriko mehatxuak...
6. Ez dugu gaztelaraz datorren eskutitzik argitaratuko.

Barren

Nafarroa enparantza, 2 • 20870 ELGOIBAR
 ☎ 943 74 41 12
 Publizitatea: ☎ 943 74 37 04
 Faxa: ☎ 943 74 37 04
 E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com

Argitaratzailea:





Arkaitz
Irureta

Kaixo irakurle: guri ere, Txino eta bioi tokatu zaigu "Ipurbeltz" tarte honetan zuen aurrean hitz batzuk botatzea. Ez da lan erraza izango, baina saiatu behintzat saiaturako gara zuei tartetxo bat lapurtzen. Eta aurkezpenak eginda, Txino, makina bat gai bazeuzkat buruan bueltaka gure irakurleei kontatzeko, nere poztasun eta preokupazioak nolabait azaleratzeko.

Mundu honen nondik norakoek kezkatzen naitek. Agintarien ustelkeriak eta interes pertsonal nahiz partidistek, beste era batean esanda, denon mesedetan egiten omen duten horien aitzakian beraien patrikak nola betetzen dituzten ikusteak nazka ematen zidak.

“Agintarien ustelkeri eta interes pertsonal nahiz partidistek kezkatzen naitek”.

AEBetan, adibidez, terrorismoaren kontrako aitzakian demasak egiten dizkitek, eta gero beraiek dituk odolusteak batere ardurarik gabe armak saltzearen negozioa egitera joaten direnak. Beraz, nor duk terrorista?

Baina esan diadan bezala, preokupazioak bakarrik ez, nire poztasunak kontatzeko parada ere hartu nahi diat. Batetik G8a biltzen den bakoitzean herritarren erantzuna gero eta globalizatuagoa dela ikusten diat, eta bestetik, G77 (munduko 77 herrialdeen bazkuna; to demokrazia! 8 boteretsuago 77 baino) bezalako mugimenduen bilakaerak benetan indartzen naik. Ene aburuz adibide horrek argi erakusten dik herria altxatu behar dela, 8 herrialde supermilitarizatu horiek ezer gutxi edukiko ditek egiteko 77 herrialdeetako jendea altxatzen baduk, ez duk uste, Txino?



Sugar
Etxaniz

Arrazoi duk bai. Bazagok itxaropentsu egoteko motiborik. Baina era berean denok zekiagu boteredunak euren interesak babestearren edozertarako kapazak direla, giza baloreak antzina galdu zitiztean herrialde aberatsetan, motel. Ez zagok mundu zabalera jo beharrik hori ikusteko. Beste mundu txikiago batean, hemen bertan herrialde aberatsenetako batean bizi gaituk eta injustizia berberak bizi ditiagu. Zapaltzaileak eta zapalduak zaudek eta botere goseak egiten dituen eskandaluzko estragoak eguneroko kabiara duk batzuentzako. Dena negozio den bitartean hemen jai zegok. Kartzelak egitea negozioa baduk egingo ditzitek, baita bete ere gehiago egiteko. Trenak, autopistak, presak, harrobiak, portuak... denak beharrezkoak omen, eta beharrezko ez badira ere beharrezko bihurtuko dizkiagu mundua planeta hila bihurtu arte.

“Beldur nauk, Piru, herriaren altxamendua ez ote den beranduegi etorriko”.


Justizia eta demokraziaren izenean ere ez zakiat zer falta zaigun ikusteko egunotan. Ez duk ezer berria espainiar estatuko epaileak, hango eta hemengo agintarien komenentziara herritarrek besterik gabe atxilotzea baina hain lotsagabeki, betiko maskararen beharrik gabe ezta garairik txarretenan ere. Hemen herria lotaratu ditek beldurra eta gezurra egunero erabiltzearen poderioz eta ez zakiat noraino iritsi daitezkeen inpunitate horrekin. Hauteskunde hauek noizbait pasako al dituk! Gero eta denbora gutxiago zagok abiadura handiko zoramen hau atzera bueltarik gabe geratu ez dadin. Beldur nauk, Piru, herriaren altxamendua ez ote den beranduegi etorriko.



Elgoibarko Udala



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



50 urte eta gero, Kubako agintea laga du Fidel Castrok.

Harritu zaitu Fidel Castroren erretiroak?



Luis Prieto

45 urte, irakaslea


Ez nau harritu, uste dut guztiok espero genuela albiste. Fidel Castro lekuz kanpo zegoen aspalditik, nahiz eta boterean jarraitu. Ez dut uste azalpen gehiago emango duenik.



Raquel Avila

16 urte, ikaslea

Politikako gaurkotasuneko gaiei ez diet kasu askorik egiten. Fidel Castroren inguruan ez dut ez aurkako ez aldeko iritzirik, eta ez dakit bere erabakiak zer eragin izango duen.



Margarita Arriola

43 urte, langabetua

Ez nau harritu, espero nuen. Bazen garaia boteretik erretiratzeko, nahikoa egin du berrogeita hamar urteotan. Ea Kuban egoerak hobera egiten duen eta itxaropena nagusitzen den.



Marije Sanchez

32 urte, erizaina

Aspalditik espero nuen albiste. Bazen garaia. Baina erabakia hartu eta hurrengo egunean enteratu nintzen, ez dudalako albiste-giak entzuteko denborarik izan.

10^{eko}
TXIKIAN



MARIA
PEREZ

Teknikaria

1. Zer falta zaio herriari?

Parke gehiago. Elizaren ondoan dagoen parkea zaindu gabe dago eta Maltzagako bidea ere ez dago ondo.

2. Azken aldian egin diren obretatik, zein gustatu zaizu gehien?

Madala aldean asko gustatzen zait, hobera egin du eta beste leku bat dirudi.

3. Nolakoak dira elgoibartarrak?

Jende jatorra gara, eta herriko kontuetan parte hartzen du jendeak. Danborrada, adibidez, arraskata handia izaten ari da eta jendea gustura dago.

4. Elgoibartarra naiz eta harro nago?

Hiru urterekin etorri nintzen herrira. Gustura nago, eta kanpoan nagoeanean ere ozen esaten dut Elgoibarkoa naizela.

5. Aukera nahikoa badago Elgoibarren kirola egiteko?

Igerilekua txiki geratu da eta kiroldegia ere bai. Ea handiagoa egiten duten, bereziki igerilekua.

6. Ausartzen zara kultur eskaintzari tentsioa hartzera?

Ondo dago. Antzerki jardunaldietara joaten naiz.

7. Bainatuko gara inoiz Deba ibaian?

Ez dut uste berriro bainatuko naizenik. Gero eta garbiagoa dago, baina ez nintzateke bainatuko. Sigma aldean bainatzen nintzen gaztea nintzela. Ez nuen ia gogoratu ere egiten.

8. Ondo komunikatuta dago gure herria? Erabiltzen duzu garraio publikoa?

Bai, Elgoibarrek trena badu eta baita autobusak ere. Trena oso puntuala da.

9. Elgoibar nolakoa den galdetu dizu kanportar batek.

Herri lasaia, estresik gabekoa eta elkar ezagutzen duguna.

10. Telebistan askotan irten da gure herria, ezta?

Irten izan da, eta askotan ospe txarragatik irten da: zapatu gauengatik edo hiesa dela eta. Gauza positiboengatik ere aterako zen, baina horiek oihartzun gutxiago izan dute.



Aitzolako autobus geltokiak egoera txarrean daude, bi norabideetan: “Denbora mordoan daramagu egoera honekin eta Udalak ez du ezer egin. Aitzolatik Mendarora joateko ez dago autobus geltokirik. Eskua altxatu behar da autobusa geratu dadin eta pixkat ilun badago, txoferrak ez zaitu ikusten. Elgoibarrera joateko egoera ere ez da askoz hobea. Markesina badago, baina errebuelta handi baten ondoren geratzen denez, autobus geltokitik kanpora egon behar da, bestela gidariak ez du inor ikusten eta ez da geratzen. Eguraldi onarekin ez dago arazorik, baina euria dagoenean blai eginda geratzen gara. Neguan eskerrak euri gutxi egin duen, markesina puskatuta dago, beraz, egongo ez balitz moduan. Espero dut egoera hori laster konpontzea”.



Zuen kezak, galderak edo txaloak bidaltzeko:
barren@elgoibarkoizarra.com / 943-74 41 12



Maialatik Urasandi auzora igotzeko bidean zuhaitz handi bat moztu dute eta orain askoz hobeto ikusten da: “Gidariei oztopo handia egiten zien Urasandi auzora igotzeko bidean zegoen zuhaitz handi batek. Ez zen bidea batera ondo ikusten. Zuhaitza moztu dutenetik askoz hobeto dago ingurune hau”.

Eskerrik asko Mintxetako muskulazio gelako ordutegia handitzeagatik: “Bazen garaia! Herri honetan jende asko dago erreleboetan lan egiten duena, eta goizak aprobeztatzen dituen kirola egiteko. Patronatuak hartu duen erabakia txalotzekoa da. Herritarrei kirola egiteko erraztasunak eman behar zaizkie”.

ESKERTZA



*Izarren hautsa egun batean
bilakatu zen bizigai,
hauts hartatikan uste gabean
noizpaik ginaden gu ernai.
Eta horrela bizitzen gera
sortuz ta sortuz gure aukera
atsedenik hartu gabe:
lana eginaz goaz aurrera
kate horretan denok batera
gogorki loturik gaude.*

*Gu sortu ginen enbor beretik
sortuko dira besteak
borroka hortan iraungo duten
zuhaitz ardaska gazteak.
Beren aukeren jabe eraikiz
ta erortzean berriro jaikiz
ibiltzen joanen direnak:
gertakizunen indar ta argiz
gure ametsa arrazoi garbiz
egiztatuko dutenak.*



2008ko otsailaren 19an hil zen **Petra Igartua Arizmendi**ren sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.

Altzolako Zubibai elkarteak egindako kritikak gezurtatu ditu Alfredo Etxeberria alkateak

Okupen arazoari irtenbidea emateko epaitegira jotzeko asmoa dute elkartekoek

Zubibai Elkarteko esanetan, irregulartasun handiak daude Zelaia Parkeko etxebizitzaren obretan. Alfredo Etxeberria alkateak salaketa horiek ukatu egin ditu eta Altzola hobetzeko lanak aurrera doazela gaineratu du. Zelaia parkeko lanak amaitu gabe daude oraindik, eta bere ustez, goizegi da irregularitasunak daudela esateko. Proiektua amaitzen denean, Udalak hasierako eta amaierako proiektuak konparatuko ditu zer dagoen faltan eta zer soberan egiaztatuko. Zelaia parkea apirilera zabalduko dutela esan du.

Zubia berritzeko 48.329 euro

Bestalde, Altzola hobetzeko lanak ez daude geldirik. Zubi berriko lanak hasita daude eta 48.329 euro erabiliko dira barandau berriak ipini eta zubi garbitzeko. Zelaia parkean berez garbitzen diren komunak jarriko dituzte eta horretarako 52.000 euro erabiliko dira. Parkea eta frontoia banatzen dituen pareta botako dute, parkea handiagoa izan dadin (5.557 euroko inbertsioa).



Etxe honetan bizi dira Altzolako okupak.

Okupak

Bestalde, Altzolako Zubibai Elkarteko kideak kezkatuta daude auzoko okupekin. Segurtasun eta garbitasun falta aipatzen dituzte: "Herriarrek liskarrak izan dituzte okupekin, mehatxuak eta begirada txarrak jasan behar izaten ditugu eta, gainera, auzo guztia zaborrez beteta

lagatzen dute". Gai hori dela eta, Udalaren "pasibitatea" salatzen dute: "Elgoibarko agintariak badirudi lasai duadela okupak Altzolan dauden bitartean eta ez dute ezer egiten egoera hori konpontzeko". Altzolako bizilagunek Eibarko epaitegira jo behar izan dute irtenbide bila eta epailearekin zita eskatu dute.

Gabonetako zozketako sariak banatu ditu Txankakuak



Txankakua Merkatari Elkartek 1.800 euro banatu ditu Gabonetako zozketan. Aste honetan egin dute sari banaketa eta ondorengoak izan dira irabazleak:

- M ^a Eugenia Zabala	500 euro
- Jaione Begiristain	500 euro
- Ainhoa Idarraga	100 euro
- Asier Lopez	100 euro
- Deñe Zabalo	100 euro
- Eli Bazkaran	100 euro
- Leire Urbiola	100 euro
- M ^a Jesus Otaegi	100 euro
- Ana Mier	100 euro
- Elsi Martinez	100 euro

Irudia **Greba orokorra**



Ezker Abertzaleak deituta, greba orokorra izan zen otsailaren 14an, EAE-ANV eta EHAKren ilegalizazioa salatzen. Herria normaltasunez esnatu bazen ere, 11:00etatik aurrera erdiguneko denda eta taberna guztiak itxi zituzten, Ezker Abertzalekoekin akordioa lortu zutelako. Eguerdian eta iluntzean kontzentrazioak eta manifestazioak izan ziren herrian. Egun bat lehenago Guardia Zibilak ibili ziren Eigoibarren eta greba iragartzen ari ziren herritarrek hormaren kontra jarri zituzten.

Zenbakia **112.633**

Elgoibarko Udalak 112.633 euro erabiliko ditu hilerriko arkupea berritzeko. Aspaldian eraikinak okerrera egin du nabarmen eta Udalak sareak ere jarri behar izan ditu estalpetik erortzen ziren harri puskak inoren gainean jausi ez zitezen. XV. mendean Martin Sanchok eraiki zuen San Bartolome eliza zaharretik zutik geratzen den atal bakarra da. Lehiaketa bidez aukeratuko du Udalak proiektua bideratuko duen enpresa. Besteak beste, estalpe berria jarri eta itxura orokorra hobetuko dizkiote Olasoko hilerriko sarrerari. Zaharberritze lanak amaitzeko hiru hilabeteko epea izango du lehiaketa irabazten duen enpresak.

Txokoa **Ezagutza gela**

Alberto Ortueta Erremintaren Museoko lehendakariak, Pedro Ortuondo zuzendariak, Alfredo Etxeberria alkateak, eta Iñaki Goñi eta Juan Mari Osteriz Euskadiko Kutxako ordezkariak Ezagutza Gela inauguratu dute Erreminta makinaren museoan. Euskadiko Kutxak emandako diru-laguntzarekin egokitu dute aretoa eta hitzaldiak, bilerak edota bideo konferentziak egiteko erabiliko da.



Euskal Herriko bikien bilkura Eibarren

Geminis Operazioak Euskal Herriko bikien bilgune bihurtu nahi du, laugarren urtez, Eibarko Untzaga Plaza apirilaren 6an. Biki elgoibartarrak ere gonbidatuta. Izena emateko epea apirilaren 3an amaituko da. Nagusiek 40 euro odaindu beharko dituzte eta txikientzako doan izango da. Parte hartzeko edo informazio gehiagorako eskutitz bat bidali daiteke Casino Artista elkartera (Eibarko Txirindulari Plaza) edo deitu 943 530 193 eta 608 207 867 telefonoetara.



Zaharren egoitzan egonaldiak Aste Santuan

Udaleko Ongizate Sailak jakinarazi du Aste Santuan zaharren egoitzan egonaldiak egiteko eskaera epea zabalik dagoela. Plazak mugatuak dira eta beraz, epez kanpo iristen diren eskaerei egoeraren arabera emango zaie erantzuna. Foru Aldundiak antolatutako ekimen honetan parte hartzeko interesa dutenek Ongizate Sailera jo dezakete zuzenean edo bestela 943 741 008 deitu.

AEKren zozketa

AEK euskaltegiak jakinarazi du 48.176 dela aurtengo zozketako zenbaki saritua, hilaren 15ean ONCEn irtendakoa. Bide batez, eskerak eman nahi dizkie errifak saldu eta erosi dituztenei.

Motxaila eguna

Haitz guztien gaineratik

Udaberriaren etorrera ospatzeko modu asko daude. Mendaron antzinatik *Sasikopeitsu* egiten zuten, mendian ogitartekoa, dantza eta musika uztartuz. Orain dela hiru urte, berriz, tradizio hori berreskuratu eta Aitzbeltz kobazuloan ekitaldi xume bat egiten hasi zen lagun koadrila bat. Aurten Motxaila egunaren helburuak berri egin dituzte, eta jai arratsaldera arte luzatu da lehendabizikoz. Ipuinak, pailazoa, flamenkoa eta bertsoak girotu zuten egunpasa.

Andoni Iturbe



Udaberi garaian uzta oparoa eskatzeko sineskeriaren beharra izan da luzaroan bazter askotan. Mendaron sasoi hori moztaleekin lotu izan da, astoari eta ardiei ilea mozteko kontratatzen baitzituzten ijitoak. Lehen, hortaz, Mendaro motxaileria zen. Motxaila asko bizi ziren garai batean eta Azpeitiko nagusienek mendaroarrei beldurra omen zieten.

Behin norbaitek elgoibartarren bati astoa ere lapurretan egin ei zion, eta asto berria erostera joan eta motxailak asto bera saldu zion ferian, irinez zuriz margotuta. “Beti egon da gure aitona-amonon aipamene bat Mendaroko motxaileri buruz: Erramun motxaila, Garagartzako familiaren bat...”, adierazi dute Motxaila elkarteko ki-deek. Ijitoek herriz herri zerabilten sinbologiak erantzun ona izan zuen Mendaron. Eta herriko gazteriak gogora ekarri ditu, egun-go sasoiara egokituz.

Kultur aniztasuna, hizkuntza biodibertsitatea eta luraren eta naturaren defentsa oinarri hartuta, ospatu zuten Motxaila eguna otsailaren 9an. Estreinaokoz arratsaldera arte luzatu zuten.

Panpina


Tamaina horretako “nahaste borrarastearen” arima, kobazuloan flamenkoa eta bertsoak elkartzeko gai dena, panpin bat da. Orain dela hiru urte egin zuten motxaila panpina eta Aitzbeltz kobazuloko sabaian zintzilik ipini zuten. Norbaitek hartu ez bazuen behintzat, litekeena da hegan joan izana, desagertu egin baitzen. Guztira, haitzuluan 30 lagun egon ziren, bazkarian

beste hainbeste eta betso potean, musikari eta bertsolariekin, 75 laguneko “artaldea” batu zen. Rios abeslari flamenko galdakoa-arrak ijito-potajea prestatu zuen eta musikariek musu-truk jo zuten.

Aldarrikapenak

Motxaila egunaren aurtengo leloa Abiadura Handiko Trenaren aurkakoa izan da. “Hitzaldi bat eman nahi genuen, baina hizlariak ezin izan zuen etorri. Kultur aniztasunari eta naturari momentu honetan egiten ari zaizkien erasoen arabera aukeratzen ditugu leloak. Euskal Herriaren aurkako erasoak ere hor kokatzen ditugu”, azaldu dute.

Herriko kultur eskaintza astintzeko, Motxaila egunak “kultur nahaste-borrastea” osatu zuen



Urtaro aldaketak eta udaberriaren etorrera herri-tradizioan

“Santa Luzietan galtzen den as-toa, San Blasetan erosten da gazte-agoa”. Atsotitz hori Zumarraga aldean ezaguna da. Euskal Herrian astoen salmentei eta ijitoen pasadizuei erreparatu izan zaie, Mendaroko aitona-amonak motxailen kontuak gogoratzen dituzten bezala.

Urtaro aldaketak eragin nabarmena izan du landa eremuetan, udaberriari ongi etorria eman nahian. Motxaila egunak ere kasu egiten die usadio zahar horiei. Munduko herri guztietan erritoak eta sinakeriak izaten ditugu, bizitza lasaigo hobeto bizi ahal izateko. Urtaroen aldaketa aitzakia izan ohi da jaiak ospatzeko. *Malenitsa* astea Ukrainako jai garrantzitsu bat da. Egun horietan esne-krema, arrain

edo kabiarez betetako *pancakes* (talo antzekoak) jaten dituzte. Gozozaleek, berriz gurinez, azukrez eta eztiz betetakoak aukeratuko dituzte. Gaez, suak piztuta kantuketan eta dantzan diharduten bitartean, lastozko txorimaloak erretzeko ohitura dute.

Bestalde, Bulgariako kukeri-en jaietan gizonezkoek maskara beldurgarri jantzita dantza egiten dute suntuoan eta, Hungariako *Mohacs* horretan, neguaren sinboloa den lastozko panpina erretzen dute. Hori guztia neguari agur esateko! Antzinako ohitura eta herri-tradizio guztiak ez dira berreskuratuko, baina belaunaldi berriek ere jaramon egiten diete sasoi ateko usadio eta ohi-turei.



Gure berbak

Aditza (6): NOR-NORK oraina

Gaurkuan aditzaren hirugarren sailari helduko diogu, NOR-NORK sailari, hain zuzen. Saill horretan, subjeto bat izaten da (NORK markia dabana) eta objektu bat (NOR/ZER dabana). Objektua izan leike singularra (bakarra) edo plurala. Gaur singularra deben kasuekin hasiko gara.

Hona ba zein diran orainaldiko formak:

- Neutruak: *Lagun bat **ekarri dot** autuan Donostiatik, lagun bat **ekarri dau** harek, guk **ekarri dogu**, zuk **ekarri dozu**, zuek **ekarri dozue**, hárek **ekarri debe**.*

- Hikakuak (giz.): *Lagun bat **ekarri juat** autuan Donostiatik, hik **ekarri dok**, harek **ekarri jok**, guk **ekarri juagu**, hárek **ekarri juek**.*

- Hikakuak (emak.): *Lagun bat **ekarri jonat** autuan Donostiatik, hik **ekarri don**, harek **ekarri jon**, guk **ekarri jona-gu**, hárek **ekarri jone**.*

Elgoibarren zati nagusi baten DOT da erabiltzen dan formia (DOGU, DOZU, DOZUE), -O- dabana, forma neutruetan, bai herrixan eta bai auzo gehixenetan. Hala ere, badakigu Gipuzkua aldiñ DET erakuak erabiltzen dirala. Eta zer ingurutan hasten dira DET erakuak erabiltzen? Ba, urrutira juan gabe, Altzolan bertan. Altzolan eta Mendaron hasten da DET-en erabillera-esparrua, eta Gipuzkuako parte nagusira zabaltzen da.

Jesus Mari Makazaga

Erretratu zaharra

1942

Miren Vallejok laga digu aste honetako erretratu zaharra. 1942. urteko inauterietan ateratako argazkia da, domekan hain zuzen ere. Lehen egun handia izaten zen inauterietan domeka eta Elgoibarren, gainera, diru eskaera egiteko ohitura zegoen. Argazkian ikusten dugun bezala, urte hartan jende mordo atera zen herriko behartsuen aldeko diru bilketara. Kantuan ibiltzen ziren kalez kale, dirua eskatuz. Kanturako tradizio handia zegoen garai hartan gure herrian.

Jende ezagun mordo ageri da erretratu honetan, baina ezinezkoa izan zaigu denen izenak bilatzea. Hala ere, musikari taldetxo bat irteten zen instrumentu eta guzti eta horien izenak gogoratuko ditugu. Argazkian ikusten ditugu, besteak beste, Florentino Etxeberría, Etxaniz anaiak eta Luziano Ezenarro. Oso ezagunak ziren gizon hauek Elgoibarren.

Urte asko pasatu dira, eta denbora ez da alferrik pasatzen. Garai hartako orrazkerak eta janzkerak zeharo diferenteak ziren, baina umorea orduan ere ez zen falta eta borondatea soberan geneukan elgoibartarrok. Inauteriak izan arren, dotore jantzita atera ziren kalera mutil horiek.



ESKERTZA



2008ko otsailaren 8an hil zen Mutrikun, 88 urte zituela.
Pedro Mancisidor Osororen oroimenez meza izango da larunbatean, otsailak 23, arratsaldeko 19:00etan Elgoibarko Bartolome deunaren parrokián.
 Joango zaretenoi eskerrak alde z aurretik.



5 urte “Egunkaria” gabe

Bost urte izan dira aste honetan, otsailaren 20an, Juan Del Olmo epaileak “Euskaldunon Egunkaria” itxi zuela. Elgoibarren eta Euskal Herri osoan ekimen ugari egin ziren “Egunkaria-ren” alde eta bost urteren ondoren, une haiek gogora ekarri nahi izan ditugu.



MONTSE ARREGI
Egunkariako langile ohia

“Bat-bateko zaplazteko modukoa izan zen Egunkariaren itxiera”

1. Nola gogoratzen duzu “Egunkaria-ren” itxiera eguna?

Goizean goiz irratian entzun nuen berria. Hasieran ezin nuen sinistu ere egin gertatu zena. Bat-bateko zaplaztekoa modukoa izan zen. Amatasun eszedentzian harrapatu ninduen guztiak. Hurrengo egunak gogorrak izan ziren, Martxelok eta gainontzekoek bizitakoa izugarria izan zen. Zer egin halako bidegabekeria baten aurrean? Lehenengo momentuan jota gelditzen zara.

2. Zer iruditu zitzaizun herriaren erantzuna?

Elgoibarren eta oro har Euskal Herrian jende asko eta askotarikoa atera zen kalera gertatutakoa salatzen. Nik uste dut inork ezin zuela itxiera ulertu.

3. Bost urte pasatu dira. Balantze txiki bat egingo diguzu?

Egunkaria itxi zuten baina beste bat zabaltzea lortu zen. Ez da marka makala herri txiki batentzat eta euskaraz irakurtzen duen jende kopuruari erreparatzen badiogu. “Berria” egunkaria hor dago, eta produktu bikaina da, gainera. Jende askok egin du bere alde eta hori da bost urteko balantzearen alderdirik onena.

4. Zer sentitzen duzu egungo egoeraren aurrean?

Itxiera eguneko ezintasun sentimendua berriro. Bidegabekeria galanta izan zen, gezur handien gainean eraiki dute prozesu guztia. Egunkari txikia zelakoan geunden, baina badirudi uste genuena baino garrantzitsuagoa zela batzuentzat..



Otsailaren 20a
5 urte Egunkaria gabe

Egunkaria
libre!

munduan libre
bizi ahal izateko
Egunkaria
libre munduan
bizi ahal izateko

MIREN MUJIKA

Soin Heziketa irakaslea

Otsailaren 11n greba egin zuen Miren Mujikak euskal curriculumak gorputz hezkuntzari ematen dion ordu kopuruarekin ados ez dagoelako. 2001ean hasi zen soinketa eskolak ematen 29 urteko elgoibartarra. Osasunari garrantzi handia ematen zaion gizarte honetan, bere iritziz, ezinbestekoa da ikasleak ohitura osasungarrietan hezitzen jarraitzea.



“Nire ikasleak oso haserre daude soinketako ordu murrizketekin”

Nola deitu behar zaio: soinketa, heziketa fisikoa...?

Heziketa fisikoa, soin heziketa, gorputz hezkuntza, baina ez gimnasia. Gimnasia gure ikasgaiaren zati txiki bat besterik ez da.

Gorputz eta motore garapena ez da ezinbestekoa umearen garapen osorako?

Psikomotrizitatean eta oinarrizko abilezietan arazoak dituen haurrak beste gaietan ere arazoak izango ditu: idazketan, espazio eta denboraren egituraketan...

Soin Heziketako curriculum maila teorikoan handitu egin dute, baina ez praktikan. Asko murriztu da?

Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza sailak Oinarrizko Hezkuntza (6-16 urte artekoa) arautuko du euskal curriculum berrian, eta bertan gorputz hezkuntzaren arloa ia %40 murrizten da. Dekretu honekin Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikasleek, euren gorputz eta motore gaitasunak garatzeko, ariketa fisikoa egiteko eta ohitura osasungarriak eskuratu eta garatzeko denbora erdia izango dute.

Gaur egungo gizartearen norabidea ikusita, heziketa horrek berebiziko garrantzia du?

Bai, ez baita soilik mugatzen gaitasun fisiko eta motoreak garatze-

ra. Ariketa fisikoa eta kirola egiteko ohiturak eskuratzeko lehenbiziko aukera eta baliabidea da, betiere haurrak bere eta besteen gorputza ezagutzen, onartuz eta errespetatuz, aniztasuna onartzen eta baloratzen ikasiz, elkarbizitzarako baloreak (arauen errespetua, elkarlana, kooperazioa...) landuz. Hori guztia, sedentarisismoa, loditasuna, anorexia, bulimia, droga-menpekotasuna, ariketa fisikoaren uzte goiztiarra, genero biolentzia... bezalako gizarte arazoei aurre egiteko beharrezkoa da.

Zure ikasleen erreakzioa zein izan da?

Ikasleak oso haserre daude ordu murrizketekin. Gorputz hezkuntza gustuko duten ikasgaia da eta orduak gutxitzeak dakarren eraginak hausnartzen ibili gara azken asteotan protesta moduan egin ditugun eskola teorikoetan. Eurak ohituta daude asteen bi orduko saioak edukitzera, eta gainera beti gutxiegi iruditzen zaie.

Kezka badago umeez nahikoa kirol egiten ez dutelako?

Bai. Europako Batasunetik datorren gomendioa, gaurko ume eta gazteen artean dagoen obesitate eta ohitura sedentarioak aldatzeko, gorputz hezkuntzako saioak hiru orduetik bost orduetara handitzea da. Hortaz, zertan ari gara hemen orduak kentzen?

Lau elgoibartarrek bikoteka parte hartu dute Vall Fosca eski proban

Euskadiko Koparako puntuagarria da Kataluniako irekia

Joseba Elustondo, Iker Leonardo, Iñigo Lariz eta Arkaitz Iureta otsailaren 16an Euskadiko Koparako puntuagarria den hirugarren mendi-eski proban lehiatu ziren. Adiskidetzan oinarrituta dago Vall Fosca irekia eta bikoteka egiten da. Gainera bikoteko bigarrenaren denbora hartzen da kontuan.



arrastoekin, besteak aurreratzeko ezinbestekoa, markaturik zegoen.

Lasterketan zehar bideoak eta argazkiak atera zituzten elgoibartarrek, eta bukaeran bideo emanaldia, afaria eta material zozketarekin gozatu zuten.

Eguraldi zoragarria

Proba hasi erreko bi asteetan, elurrik bota gabe eta tenperatura oso altuekin pasa ondoren, oso lasterketa polita baina aldi berean gogorra izan zen, lasterkarien arabera. 1.800 metrotik gorako altuera positiboa zegoen eta antolakuntzak egina hal guztiak egin zituen dena primeran irteko asmoz. Iaigoerako ibilbide guztia bi

Igeriketa taldea fin aritu zen Gipuzkoako bigarren benjamin testean



Nagore Rodriguez (57.77), Ane Almenara (1.00.39), Elsa Astigarraga (1.05.22) 50 metro bizkar-igeriketan lehiatu ziren 1999an jaiotako txanpan. 1998-1999an jaiotako proban,

berriz, lau mutil aritu ziren nor baino nor: Danel Legorburu (50.41). Imanol Albizu (54.45), Iker Odria (58.63) eta Danel Mugara (1.17.37). Elgoibarko Igeriketa Taldeak Eibarren egin zituen.

Ordutegi berria Mintxetako muskulazio gelan

Mintxetako muskulazio gelak ordutegi berria izango du martxoaren 3tik aurrera. Martitzen eta eguen goizetan irekita egongo da aurrerantzean, 10:00etatik 12:30era. Arratsaldeetan, astelehenetik barixakura, 15:00etatik 21:30ak bitartean irekiko ditu ateak.

EMAITZAK

FUTBOLA

Amorebieta 1 – Haundi 1
Elgoibar 1 – Lazkao 1 (1. erreg.)
Burumendi 1 – Elgoibar 1 (jubenilak)
Elgoibar 1 – Eibar 1 (kadete)
Elgoibar 2 – Oiartzun 2 (infantil)
Luberri 0 – Elgoibar 3 (infantil txiki)
Intxaurdi 2 – Elgoibar 0 (neskak)

ARETO FUTBOLA

Sasikoa B 3 – Kenci 6 (euska liga)

XAKEA

Lerun 4 – Billabona 0 (euska liga)

ESKUBALOAIA

Tecnifuelle 22 – Urdaibai 19 (senior neskek)
Zarautz 26 – Elgoibar 21 (jubenil mutilak)
Zarautz 40 – Tecnomeca 14 (kadete mut.)
IMH Elgoibar 25 – Usurbil 24 (kadete neskek)
Pulpo 20 – Elgoibar 24 (jub. neska)
Aterpe 17 – Zarautz 12 (infantil neskek)
Caldereria Lili 16 – Pulpo 18 (infantil neskek)
Pilar Bidasoa 28 – Hotel Txarriduna 25 (inf. neskek)
Leizaran 10 – Casa Astigarrag 7 (inf. neskek)

ESKOLA ARTEKO GIPUZKOAKO KROSA

-Mintxeta Atletismo Taldeak lehen postua lortu zuen nesken alein mailan.
-Bigarren nesken eta mutilen infantil mailan.
-Seigarren mutilen alein mailan.
-Lorea Santiago da Gipuzkoako txapelkun berria alein mailan.

AGENDA

ARETO FUTBOLA (Kiroldegian)

Larunbata, 23
15:45 Kenci – Eskoriatza

ESKUBALOAIA (Kiroldegian)

Zapatua, 23
10:00 Bankoa – Ereintza C (infantil mutilak)
11:00 C. Astigarraga – Bera Bera (infantil neskek)
17:30 Pneumax – Arrate (jubenil mutilak)
19:00 Tecnomeca – Arrate (kadete mutilak)
Domeka, 24
11:00 H. Txarriduna – Arrate (infantil mutilak)

IDARRAGA SARIAK

HAUNDIko jokalaririk erregularrena 07/08

Jokalaririk	Puntuak
1. Kerman	70
2. Navarrete	64
3. Gabilondo	52
4. Arrillaga	39
5. Munitis	31

JOSE MARI LARRAÑAGA

Antzerki tailerreko irakaslea

Jose Mari Larrañaga, Edurne Lasarekin batera, Taupada antzerki taldeko kidea eta antzerki tailerraren bultzatzailea da. Biek eskarmentu handia dute ikastaroak ematen, eta orain dela bi urte Elgoibarren hasi zirenetik, ikasle asko pasatu dira bertatik. Gaur egun antzezlanak prestatzen ari dira, eta proiektu hori aurrera eramateko ari dira buru-belarri lotsa gainditu duten ikasleak trebatzen.

“Antzerkiaren prozesua zaila da, pixkanaka joan behar da barneratzen”

Tailerrak izan duen erantzunarekin gustura zaudete?

Bai, orain dela bi urte hasi ginen. Topagunera begira egin zen deialdi bat eta 18-20 lagun apuntatu ziren. Prestatu genuen lan bat Madalako parkean egiteko eta hark gero jarraipena izan zuen. Gainera gazteek eskatu ziguten antzerkian jarraitzea. Hasieran hasi ginen larunbat arratsaldeetan, eta jende piloia etortzen zen, kanpotik ere bai, eta orduan erabaki genuen lanegunetan hastea.

Serio hartzen dute gazteek antzerki mundua?

Momentu honetan daudenek bai; batzuk tailerrera gerturatu dira ikusteko zer den. Antzertikitik beti ateratzen da etekina, umore onez ateratzen zara eta denbora azkar pasatzen da. Tokatu izan zaigu bakarren batzuek deitzea telebistan halako oihartzuna duten fenomenoez galdezka. Hankak lurrean dituzten ikasleak ditugu. Antzerkiaren prozesua zaila da, pixkanaka-pixkanaka joan behar da barneratzen.

Zer proiektu duzue ikasleekin?

Antzezlanak prestatzen ari gara.

Zein antzezlan izango da?

Teresa Calok irabazi zuen Santurtziko Serantes saria. Gaztelan idatzi zuen eta Angel Ugarteburuk euskaratu du. Haren alaba ere gurekin egon da antzerki tailerretan.

Zein da gaia?

Esketxak dira, ordu eta erdi horretan hainbat istorio kontatzen dira:



langileen arteko harremanak, bakardadea... puntu komiko-ironiko batenekin, gazte eta helduentzat.

Zenbaterik egingo dute lan?

Seik edo zazpik.

Gainontzekoak kanpoan geratu dira?

Ez, momentu honetan hitz eman dute horiek eta gainontzekoak harremanetan jarraitzen dute tailerrarekin, laguntzen...

Taula gainean lotsa asko agertzen dute ikasleek?

Guztiak ez ziren lotsatiak baina batzuk bai, hasieran. Oso harreman ona dago gure artean, konfiantzako giroa. Eta lotsa gaindituta dago. Horri buruz jabetu nintzen orain dela hilabete batzuk lokalean lanean ari ginela. Hotz egiten zuen eta proposamena zen egoera batzuk aukeratzeko. Oso xelebrea zen, hondartzan zeudela antzestu baitzuten: erropa kendu, krema eman... Papelean erabat sartu ziren; oso ondo egon zen.

Zein interpretazio-teknika erabiltzen dituzue?

Ez diegu izenik jartzen. Gure ibilbidean lan asko egiten dugu eta beti gaude ikasten. Gure metodologia dugu.

Ateak irekita daude tailerretan izena emateko?

Ez, paperak banatuta daude. Tailerrak ez dira orain hasi; hautsi egin-luke talde dinamika. Salbuespenak badaude, norbaitek gogo bizia badu eta eskarmentua badu, desberdina da.

Hiru elgoibartarrek lehen postua lortu zuten soinu zahar eta aurreku txapelketan

Joan den asteburuan Oiartzunen lehiatu ziren

Elgoibarko dantzariak maila bikaina dutela erakutsi zuten joan den asteburuan Oiartzungo Elorsoro kiroldegian, han izan zen eta aurreku eta soinu zahar ligaxkako azken edizioa. Inazio Bereziartua musika eta dantza eskolako hiru elgoibartarrek lehen postua eskuratu zuten hiru sailetan.

Zapatuan, otsailaren 16an, Andrea Arregi izan zen 22 dantzari onena, nesketako A sailean (7-11 urte). Nahia Makazagak bosgarren postua lortu zuen.



Domekan B saileko ligaxka izan zen, 11 urtetik 15era bitartean. Irabazlea Igor Asenjo izan zen eta Imanol Iturrino bosgarrena. B saileko nesketan, 14 parte-hartzaile izan ziren: Maria Ferreirok lehen postua lortu zuen, Itziar Aldalurrek hirugarrena, Arantxa Ferreirok laugarrena eta Nerea Badiolak seigarrena.

Haritz Dantzari Taldeko Jon Lizarraldek oparia jaso zuen, irabazleen irakaslea delako. Otsailaren 13an dantzariok Elgoibarren jardungo dute.



Gaztelekuak pegatina tailerra prest du zapaturako

Gaztelekuak pegatina tailerren parte hartzeko aukera izango dute bihar, zapatua, Gaztelekuetan. Eskulan horren bidez pegatina ikusgarriak egiteko aukera izango dute. Parte hartu nahi dutenek Gaztelekuera joan beharko dute 17:30etan.

Inteligentzia emozionalaren inguruko jardunaldiak

Gurasoen formaziorako jardunaldien bigarren atala eskainiko dute eguaztenean, otsailaren 27an. Adimen emozionalaren garapenaren inguruko xehetasunak eskainiko dira, 18:30etatik aurrera Kultur Etxeko hitzaldi gelan, Elgoibarko Institutuko eta Herri Eskolako Gurasoen elkarteak antolatuta.

San Bartolomeei buruzko proposamenak

Elgoibarko Udalak San Bartolome jaien inguruko edozein proposamen batu nahi dituela iragarri du. Ideiok martxoaren 3a baino lehen bidali behar dira idatziz Kultur Etxera edo kultura@elgoibar.org helbidera. Bestela, deitu honetara: 943 742 158.

ESKERTZA



*Eskerrik asko danoi
bizi arazitako momentu on guztiengatik,
eskerrik asko
zinen bezalakoa izateagatik.
Beti egongo zara
gure bihotzean,
maite zaitugu.
Adiorik ez.*

2008ko otsailaren 5ean hil zen, 65 urte zituela, **Javier Ezenarro Artolazabalen** sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



LANA

ESKAERA

- Neska, nagusiak zaintzeko edo garbiketarako orduka egiteko. ☎ **686 127 137**
- Neska, nagusiak edo umeak zaintzeko edo garbiketarako orduka egiteko. ☎ **648 603 029**
- Mutila, zerbitzari lana egiteko prest. Urteetako eskarmentua. ☎ **617 061 140**
- Emakumea, dendari laguntzaile edo pertsona helduak zaintzeko. ☎ **943 53 02 43 / 648 505 256**
- Neska, pertsona helduak zaintzeko prest. ☎ **616 230 814**
- Neska, pertsona helduak zaintzeko, garbiketarako edo sukaldetan laguntzaile aritzko prest. ☎ **638 338 816**
- Emakumea, arratsalde 16:00ak eta 19:00ak bitartean helduak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako prest. ☎ **639 240 038**
- Neska, edozein lan egiteko prest: nagusiak edo umeak zaindu, tabernan zerbitzari, garbiketa lanetarako... ☎ **680 250 527**
- Neska, garbiketa lanetarako, nagusiak zaintzeko edo orduka lan egiteko prest ☎ **686 127 137**
- Neska, garbiketa lanetarako, nagusiak zaintzeko edo tabernan zerbitzari izateko prest ☎ **649 368 137**
- Neska, lanerako prest ☎ **658 400 556**
- Neska, nagusiak edo garbiketa lanerako prest ☎ **678 939 382 649 212 944**
- Neska, nagusiak edo garbiketa lanerako prest ☎ **646 821 678**
- Mutila, haragitegian lan egiteko prest ☎ **610 913 340**
- Ingenieritza titulatuak matematikako eta kimikako eskola partikularrak emango lituzke lauko taldeetan ☎ **605 737 523**

ESKAINTZA

- Sukaldetan asteburuetan eta jai egunetan lan egiteko laguntzailea behar da Mendaroko kafetegi batean. ☎ **943 030 150**
- Sukaldaria eta zerbitzaria behar dira. ☎ **943 743 196**

- Emakume euskalduna behar da nagusi bat ordu batzuetan zaintzeko, beharrezkoa da autoa edukitzea. ☎ **699 217 721**

ETXEBIZITZAK

SALMENTA

- Etxea salgai Erretxindin. Lau logela, sukalde berria, eguzkitsua, ganbara, balkoi handia. Altzariekin saltzen da. ☎ **628 115 677**
- Etxea salgai Sigman. 60 m², logela bi, egongela, komuna, sukalde handia balkoiarekin. Berritua eta oso eguzkitsua. ☎ **636 274 420**

ALOKAIRUA

- 95 m² lokala alokatzen da. Bi sarrera ditu, bata San Frantzisko kaletik eta bestea Urruzuno kaletik. ☎ **943 740 009**

GARAJEAK

- Marradun garaje estalia salgai, ikastola ondoan. 7.500 euro. ☎ **943 743578 639 502127**
- Garaje itxia salgai pista beltzean. ☎ **943 742 306**
- Garaje itxia salgai Mugerza kalean. ☎ **943 441 436**
- Marradun garajea alokatzen da, aitzari handia du. Auto edo motorrentzako aproposa. 35 euro hilabeteko. ☎ **616 111 603**

MOTORRA

- Autoa salgai, Suzuki Vizara, hiru ate, 1.9. diesela, 2000. urtekoa. ☎ **943 254 366** (14.00etatik aurrera deitu) ☎ **654 949 123**

- Motorra salgai Shooter Aiyumo, 125 cc. ditu; sei hilabete eta bermarekin. ☎ **670 957 036**
- Motorra salgai 49 cc. ea 1000 kilometro. 2007ko abuztuaren matrikulatua. Osagaiak: kaskoa, doan lapurreten aurkako kandadua, atzealdeko arkoa. ☎ **663 117 444 / 943 744 031**

BESTELAKOAK

- Etxeo altzariak, elektragailuak eta oherako izarrek, mantak, koltzak, edredoiak eta kortinak behar dira. ☎ **676 444 171**
- Zero Sette trikiritaxa erosiko nuke. ☎ **655 742 836**
- Mutrikun ezarritako karabana salgai. Extra asko. ☎ **943 743 923 / 629 415 384**
- Garaiurrak grabatzeko hiru makina frantziar saltzen dira. Galagarza Erlojundendan salgai.
- Pisua konpartitzeko laguna behar dugu. ☎ **610 45 85 52 (Nerea)**
- Deban alokairurako pisu bat behar dugu. ☎ **636 690 861**

ABISUAK

- Txori bat aurkitu da bi uzta hanketan dituela, berde eta hori kolorekoa. ☎ **696 608 485**
- Erretxindin argazki kamera lapurretan egin zuten hilaren 12an, arratsaldeko 19:00ak eta 21:00ak bitartean. Txartela duenak laga dezala Correoseko 178 posta-kutxan.
- Sofa bat eta bi besaulki oparitzen dira, multzoan. Baita ohe handi bat ere. Galagarza Erloju-dendan galdetu.
- Baratza konpartitu nahi dut, alde zaharretik gertu dago. Ura du, simaurra eta lan egiteko erremintak. ☎ **655 723 678 / 943 74 3919**

OHARRA

Salmentarako eta alokairurako iragarkiak ordaindu egin behar dira. Iragarkiak lau astetan agertuko dira. Etxeak, lokalak eta garajeak: salmenta 12 euro eta alokairua 8 euro. Autoak 8 euro. Eta bestelakoak 5 euro. Eguazten eguerdia baino lehen. Tel.: 943 74 37 04

I. URTEURRENA




2007ko otsailaren 25ean hil zen, 89 urte zituela, *Moises Aguirre Larrañagaren* oroimenez I. urteurreneko meza izango da, larunbatean, otsailak 23, arratsaldeko 19:00etan Elgoibarko Bartolome deunaren parrokiaren parrokian. Joango zaretenoi eskerrak aldeztu aurretik.





• Segi musika jartzen gure bidaia honi... eta disfrutatuzure bederatzigarrena! Eskerrik asko eta zorionak!



• Zorionak, **Pau**, astelehenean lau urte egin zenituelako etxekoan partez. Altzolatik ere, muxuak...



• Zorionak, **Aiora**, 25ean urtetxo bat egingo duzulako, etxekoan eta lhintzaren partez.



• Zorionak, **Alba**, hilaren 12an zazpi urte egin zenituelako, gurasoen eta Rocio eta Auraren partez.



• Zorionak plazako txarkutero jatorrenari! Gaurko bazkariaren zain gaudenen partez.



• Zorionak, **Andrey**, otsailaren 25ean urteak egingo dituzulako. Muxu handi bat familiaren partez.



• Zorionak, **Nora**, otsailaren 22an sei urte egin zenituelako. Etxekoan partez muxu handi bat.



• Zorionak, **Duna**, 26an urtebete egingo duzulako. Guraso, familiaren eta Jose eta Karmenen partez.



• Zorionak, **arna**, muxu asko zure alaba eta iloben partez.



• Zorionak, **Miren**, kafeko zure lagunaren partez.



• Zorionak, **Beñat**, bihar lau urte egingo dituzulako, etxekoan eta bereziki Kaiet eta Unaxen partez.



• Zorionak, **Asier**, otsailaren 18an bost urte egin zenituelako, etxeko guztien partez.



• Zorionak **Ainhoa**, datorren asteartean, 10 urte egingo dituzulako. Nagore eta aitaxoren partez.

Matape taberna
Orain astegunetan

San Frantzisko, 60
tel: 943 74 19 43

© Malara
Leginbait 761345

PINTURAK
PEDRO PEREZ BERISTAIN

Xixilon, 2 · 3. soltoa 943 74 38 52 - 74 27 89

KOMUNITATEAK ETA FATXADAK - BERRIZTATZEAK - PINTAKETA

karobi Zatoz gu bisitatzera!
taberna

Karobiren INAUGURAZIOA!!
Gaur, otsailak 22, arratsaldeko 19:00etatik aurrera.

OKINDEGIA

24 igandea **EIZAGIRRE**

FARMAZIAK

24 ORDUZ

- 22 Yudego
- 23 Etxeberria (Santa Ana)
*(*Goizez Zabaleta)*
- 24 Zabaleta
- 25 Etxeberria (Errosario)
- 26 Ibañez
- 27 Garitaonandia
- 28 Etxeberria (Santa Ana)
- 29 Fernandez

Escala

Rekalde, 1 (SORALUZE)
Tel: 943 75 16 38

Fernandez

Herriko enparantza 4, Garagarza (MENDARO)
Tel: 943 75 61 42

Zabaleta

Kalebarren, 9 (SORALUZE)
Tel: 943 75 13 84

INFORMAZIO GEHIAGO:



Egin klik www.elgoiBARREN.net-en

22 barixakua

18:00 Ipuin kontalaria
Ludotekan.

23 zapatua

17:30 Pegatina tailerra
Pegatina koadro tailerrak egingo dituzte Gaztelekuan.

24 domeka

10:00 Mendi irteera
Ikastolako Guraso Taldeak antolatuta, Andutz (610m) mendira egingo dute txangoa. Irteera: Elgoibar Ikastolan.

16:00 Irteera
Gaztetxoentzako Berasetara irteera. Gaztelekutik aterako dira.

26 martitzena

17:30 Zeramika tailerra
Zeramika tailerra izango da Gaztelekuan.

27 eguaztena

18:30 Gurasoen Formaziorako Jardunaldiak
Herri Eskolako Gurasoen Elkarteak eta Elgoibarko Herri Institutoak antolatuta, gurasoen formaziorako jardunaldiak izango dira. Aurtengoa IX. edizioa da eta admien emozionalaren gaia landuko da.



«Soy leyenda»

22, barixakua: 22:15
23, zapatua: 19:00-22:15
23, domeka: 19:00-22:15
24, astelehena: 21:30

«Encantada»

23, domeka: 16:30

«Soy leyenda»

Zuzendaria: Francis Lawrence
Aktoreak: Will Smith, Alice Braga

Robert Neville zientzilari bikaina izan arren, ezin izan du ezer egin gizkaiak sortutako birus sendagaitz eta geldiezinaren kontra. Bera da une honetan New Yorken eta, akaso, mundu osoan bizirik dagoen bakarra. Baina ez dago bakarrik: birusak jotako mutanteak dabilta inguruan. Bere odolarekin saiatuko da gaitza sendatzen, baina denbora bere kontra doa.

28 *egüena*

17:30 Zeramika tailerra

Zeramika tailerra izango da Gaztelekuan.

19:00 Antzerki Tailerra

Taupada Antzerki Taldeak antolatuta, ostegunero izaten da antzerki tailerra. Parte hartzeko interesa dutenek 943743655 telefonora deitu dezakete.

21:30 Zine Kluba

Ongarri Zine Klubak antolatuta, *La estrella ausente* pelikula ikusteko aukera izango da Herriko Antzokian.

29 *barixakua*

19:00 Kontzertua

Inazio Bereziartua Musika eta Dantza Eskolako taldeen kontzertua izango da Herriko Antzokian.

Gure gomendioa

Inazio Bereziartua Musika eta Dantza Eskolako taldeen kontzertua

Otsailak 29, barixakua, 19:30ean Herriko Antzokian

Musika zaletuek Herriko Antzokian kontzertua izango dute datorren barixakuan. Inazio Bereziartua Musika eta Dantza Eskolako taldeek arratsaldeko 19:30ean eskainiko dute. Gabonetako eta ikasturte amaierako kontzertuei beste bat gehitu diete aurtengo egitarauan. Aurreko urteetan beste herrietara joaten ziren kontzertuak eskaintzera, baina aurten sistema aldatu eta herrian bertan eskaintzea erabaki dute. Hari-instrumentuak, soinuak, gazteen banda eta rock taldea izango dira protagonistak. Talde bakoitzak bi edo hiru abesti eskainiko ditu eta ordubeteko iraupena izango du kontzertuak. Musika Eskolak elgoibartar guztiak gonbidatu nahi ditu.



ESTETIZISTA
behar da Bergaran,
esperientziarekian
Deitu 12:00etatik 16:00etara
19:00etatik 21:00etara
669 003 843 zenbakira



murrplastik

- KABLEENTZAT KATEAK
- IDENTIFIKAZIO SISTEMAK
- KABLEENTZAT PLAKAK
- TUBOAK ETA ERRAKOREAK



Bulkatu S. Coop.
Olaso industrialdea. Olasope, 66-A
Tel.-Faxa: 943 74 42 54 - 20870 ELGOIBAR

MEKANIZATUEN TAILERRA



URKIDI
AHOLKULARITZA

Antonio Urkidi
Josefina Fernandez

Tel.: 943 74 18 91
Faxa: 943 53 01 49
Kalamua, 12

Liberty
Aseguruak

B

BARREN

GIDA08

Elgoibar - Mendaro



Datorren barixakuan, otsailak 29, Elgoibar eta Mendaroko gida komertziala banatuko dugu

Ez baduzu 2008ko gida jasotzen deitu 943 74 37 04 telefonora

**Badakizuz Elgoibarren
Ingeniaritza egin
daitekeela lan eta ikasiz?**

Ate irekiak!



Zatoz eta ezagutu gaitzazu!!

Martxoak 1, Goizeko 11:00etan



Gremioen

GIDA



Aroztegiak

Asima

Mota guztietako arotz lanak
Ermuaranbide, 18
☎ 687 15 02 26
☎ 650 02 66 31

Biena

Neurrira egindako lana
Ermuaranbide, 16
☎ 943 74 31 16

Garcia

Aluminioa eta PVCa
P. Muguruza, 30
☎ 943 74 32 38

Imar

Aroztegia
☎ 943 53 14 71
☎ 646 90 55 64
☎ 609 05 49 78

Lodoso Leihoak

Sigmako Industrialdea
Xixilion 2-2. pabiloia - 3. zenb.
☎ 943 74 34 90
Faxa: 943 74 73 12
www.fjodoso.euskalnet.net

Soraluze

Lelhoak-Armalru enpotratuak
Santa Ana, 8
☎ 943 74 36 34

Ulazia

Aroztegia eta enbalajeak
Santa Klara, 10
☎ 943 74 05 47



Indusketa lanak

Lekunberri Indusketak

Indusketa eta indusketa txikiak
Lekunberri baserria
☎ 943 74 20 98/629 42 56 32
koldo@movistar.es
www.excavacioneslekunberri.com



Iturgintza, berogailua, eguzki energia, gasa eta klimatizazioa

Ibámar

Ermuaran Bide, 11
☎ 943 53 18 47
☎ 647 463 436 (Floren)

Javi

Erretxindi, 1 behea
☎ 659 772 932

Ongi

Olaso Poligonoa, 15-68 pabiloia
☎ 943 74 28 80

Pagoaga

San Antolin, 13
☎ 943 74 02 79

Pagoerrotza

Herriko Enparantza, 10 behea
MENDARO
☎ 943 75 60 44/659 33 43 23

Tellabide

Azpilgoeta, 7 • MENDARO
☎ 943 75 50 62/607 75 50 62

Santa Ana Iturgintza eta instalazioak

Urasandi, 17
☎ 943 74 05 30/605 71 49 05
Faxa: 943 53 18 25

Zubizarreta instalazioak

Ubitarte, 5 behea
☎ 943 74 07 89/650 58 61 44



Pinturak

Blok dekorazioa S.L.

Santa Klara, 26 behea ezk.
☎ 943 74 15 52
☎ 606 43 11 19-20

Ipintza

Foruen enparantza, 4
☎ 943 74 04 40
☎ 607 74 04 40

Ku Kolorea

Urasandi kalea, 26 behea
☎ 943 74 88 43
☎ 660 52 22 58



Proiektu eta errefomak

Estudios Arrillaga

Errosario, 15 behea (Elgoibar)
☎ 943 744 055/943 744 019
Arragueta, 12 behea (Eibar)
☎ 943 200 698



Elektrizitatea

Aramar

Morkaiko, 1
☎ 943 74 12 80

Azpeleta

San Frantzisko, 51
☎ 943 74 12 38

Joseba

Killimon hiribidea, 1 (2. lokala)
MENDARO
☎ 659 934 964

Pelo

Herriko Enparantza, 5 behea
MENDARO
☎ 943 03 35 35/660 791 723

Urzelai

Santa Ana, 12-14
☎ 943 74 13 76



Igeltseritza

Antonio Markez

Urasandi, 24
☎ 943 74 34 18

E. Arandia

Urasandi, 22 behea
☎ 605 70 52 04



Autoentzako tindatutako kristalak

Glas Control S.L.

Olaso 27, 47. pabiloia
☎ 943 74 30 94